


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GIPUZKOAKO INDUSTRIA FRANKISMOAN ZE HAR: HURBILKETA BAT

Egilea: Mikel Muguruza Agirre

Tutorea: Iban Zaldúa González

Historiako gradua

2017/2018

Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak

Laburpena

Lan honen helburua Gipuzkoako bigarren sektoreak frankismoan zehar izan zuen garapena eta ezaugarriak aztertzea izango da. Lanaren muina hori izango den arren, industria gipuzkoarra urte horietara nola iritsi zen jakitea beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Horretarako, industrializazio prozesua ere aztertzen saiatuko gara, bertan egituratzen hasi baitzen ondorengo urteetan indartuko den eredua. Urte horietan, bigarren sektore gipuzkoarrak izango dituen ezaugarriak garatzen joango dira. Industria dibertsifikatua, artisau tradizioaren garrantzia edo baliabide eta lehengaien optimizazioa izan ziren industrializazio horren ezaugarriak, eta ondorengo urteetan ere ezaugarri bertsuak izan zituen industria gipuzkoarrak, ikusiko dugunez. XX. mendeko lehen hamarkadetako gorabeherak azaldu ostean, Gerra Zibileko urteei begirada azkar bat emango diegu, kronologikoki garai laburra izan bazen ere, inflexio-puntu nabarmena izan baitzen probintzian. Epealdi horretan, bi gobernu ezberdinen agindupean egon zen Gipuzkoa, eta ondorioz, baita bertako industria ere. Gobernu bakoitzak bigarren sektoreari dagokionean hartutako erabakiak bertsuak izan ziren arren, ikusiko dugu industriaren egoera oso ezberdina izan zela.

1936an hasitako gerrak, arrazoi ezberdinak direla medio, eragin negatiboak izan zituen garaiko gizartearen aspektu gehienetan, eta baita industrian ere, zeinetan lan-esku kualifikatuaren galera bereziki kaltegarria izan baitzen bigarren sektore gipuzkoarrantzat. Frankismoko lehen urteetan, ostera, erregimen autarkiko bat ezarri zen. Epealdi honetan, ikusiko dugunez, probintziako bigarren sektoreko adar asko krisialdi larrian egon ziren, lehendabiziko urteetan batez ere. 1951tik aurrera, nahiz eta erregimen autarkikoak jarraitu zuen, lehen irekiera zantzuak ikusi ziren eta horrek arnas apur bat eman zion hamarkada batez egoera kaskarrean zebilen industriari. Berrogeita hamargarren hamarkadaren hasieran hasi zen suspertze hori nabaria izan zen frankismoko bigarren epealdian. Izan ere, *Desarrollismoa* deituriko fase horretan, egoera nabarmen aldatu zen. Nazioarteko koiuntura faboragarri batean, ekonomia espainiarrak inoizko hazkunderik handiena izan zuen, eta euskal probintzietan, hazkunde hori are ikusgarriagoa izan zen. Era berean, testuinguru honetan sortu zen Gipuzkoako XX. mendeko bigarren zatia egituratuko duen fenomenoetako bat: kooperatibismoa, alegia. Hazkunde testuinguru hori ordea, 1970. hamarkadaren erdialdean amaitu zen Petrolioaren Krisiak eztanda egin eta gutxira. Gobernuak ahaleginak egin zituen arren krisialdi hori apaltzeko, mesede baino kalte gehiago egin zion ekonomiari garai horretan hartu ziren

neurri horiek, krisiak eztanda egin zuenean, are eta gogorrago kolpatu baitzuen espainiar ekonomia, Gipuzkoar industria barne. Ordutik aurrera, eta urte batzuetan zehar, industria gipuzkoarra krisialdian sartu zen, espainiar ekonomia bezalaxe. Laburbilduz, lan honen bitartez, industria gipuzkoarrak bere sorreratik diktadura frankista amaitu bitartean izan dituen gorabeherak aztertzen saiatuko gara, bere ezaugarrietan sakonduz, izan zuen garapena aztertuz eta bere koiuntura propioa azaleratuz.

Aurkibidea

Metodologia.....	5 or.
Gipuzkoako industrializazioa.....	5 or.
Industria gipuzkoarra frankismoaren atarian: Gerra Zibileko egoera.....	11 or.
Frankismoko lehen urteak: bigarren sektore gipuzkoarra Espainia autarkikoan (1939-1959).....	12 or.
<i>Desarrollismo</i> -ko hazkundera: industria gipuzkoarra espainiar mirarian (1959-1973).....	18 or.
Ondorioak.....	24 or.
Bibliografia.....	26 or.

Metodologia

Ondorengo lerroetan, lan hau burutzeko jarraitu dudan metodologia azalduko dut, labur-labur. Hasteko, eta iturriei dagokienean, erabilitako iturri guztiak bibliografikoak izan direla esan behar da, eta ondorioz, bigarren mailakoak. Ikuspegi partziala bat izatea izan daiteke mota honetako iturriak erabiltzeak dakarren ondorio negatibo bat, eta horregatik, saiatu naiz iturri bibliografiko ezberdinak kontsultatzen, aniztasuna bilatze aldera. Bestalde, nahiz eta lanaren muina bigarren sektore gipuzkoarrak frankismoan izandako portaera aztertzea den, erabaki dut industrializazio prozesutik abiatzea azterketa hau, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, tupustean hastea frankismotik bertako industriaren azterketa nahikoa nahasgarria izan daitekelako; bestetik, lehen industrializazioan Gipuzkoako bigarren sektoreak hartuko dituen ezaugarriak ondorengo garaietan izaten jarraituko dituelako, baita frankismoan ere. Era berean, gaia kronologikoki antolatzea erabaki dut, sektoreka baino.

Gipuzkoako industrializazioa

Esan bezala, beraz, frankismoan zehar industria gipuzkoarraren nondik norakoak ulertzeko, beharrezkoa iruditzen zait lehenik eta behin egoera horretara eraman zuten faktore anitzak aztertzea. Horietako bat, zalantzarik gabe, lehen industrializazioa izan zen. Jakina denez, Espainia ez zen egongo industrializazio prozesuen abangoardian eman ziren Industria Iraultza ezberdinetan. Horrek, nola ez, atzerapena eta ondorio negatiboak ekarri zizkion, ez baitzen europar potentzia bat izan luzaroan. Bestalde, ordea, bere abantailak ere izango zituen, beranduago industrializatu ziren beste herrialde batzuek bezala; esaterako, eraginkorrak diren teknologiak aplikatzeko abantaila izango zuen Espainiak.

Gipuzkoaren kasuan, benetako eraldaketa XIX. mendearen laugarren hamarkadatik aurrera hasiko dela esan daiteke. Izan ere, 1841ean, aduanen leku-aldaketa eman zen, eta barnealdean egotetik kostaldean egotera igaro ziren. Horrek, siderurgia tradizionalaren krisiak ahuldutako bigarren sektoreari indartzen hasteko aukera eman zion eta esan dezakegu industria gipuzkoar modernoaren sorrera hamarkada horretatik aurrera eman zela. Ez da zalantzan jarri behar Bizkaiaren industrializazioak eraginak izan zituela Gipuzkoan, baina lan honen helburua Gipuzkoaren garapen autonomoa aztertzea izango da. Beraz, Bizkaiaren industrializazioa industrializazio gipuzkoarra aurrera eramateko

faktore nagusitzat hartzen duten korrante historiografikoak ez dira horren aintzat hartuko lan honetan, nahiz eta egia den, Bizkaiako meategien eta siderurgiaren gertutasunak onurak ekarri zizkiola Gipuzkoari.

Gipuzkoaren kasua Bizkaiaren ezberdina izan zen, izan zituen baldintza materialak bestelakoak izan zirelako hain zuzen. Bizkaia bere lehengai mineralen aberastasunaz eta altzairugintza modernoan gertatutako aldaketa teknikoek eskainitako aukeraz baliatu zen, eta industrializazioa, neurri batean, sektore horren esplotazioan eta garapenean oinarritu zen, 1870eko hamarraldiaren amaieratik aurrera, batik bat. Jakina da siderurgia indartsu bat garatu zela bertan, kanpo eta barne-merkatuetara bideratua. Gainera, kapital metaketarako abagune garbiak sortu ziren eta berrinbertsioan oinarritutako sektore hori laster puntakoa izatera heldu zen. Ordea, Gipuzkoari dagokionean, lehengaien falta nabarmena izango da, eta beste bide batzuetatik joango zen bertako industrializazioa. Era berean, aipagarria da bankuek izan zuten garrantzia erlatiboa industrializazio honetan: kapital finantzarioaren garrantzia erlatiboki txikia izan zen Bizkaiarekiko egon zen beste alde nabarietako bat (Catalan, 1990, 147 or.). Ezin izan zenez Bizkaiaren eman zen bezalako abagune bat aprobetxatu, bertako industria dibertsifikatu egin zen bigarren sektoreko hainbat adarretara joz; horixe izango da industria gipuzkoarraren ezaugarri nagusietako bat. Modu horretan, errekurtsioak maximizatzea bultzatu zen, eta baita merkaturatzen errazak ziren produktuen ekoizpena ere. Baliabideen optimizazio horrek, paisaia industrial konkretu bat eratuko duela esan dezakegu, tokian-tokiko aukeren arabera paisaia industrial bat, alegia. Horrela, esaterako, ur-errekurtsioen oparotasunak paper industria nahiko indartsu baten sorrera ekarriko du Oriako haranean, artisau tradizioak armagintza industria ezaguna garatuko du Eibarren edota Pasaiaren lokalizazio estrategikoak esportazioen alorrean industria sortzea ere eragingo du (Castells & Luengo, 1988, 256 or.). Hala ere, nahiz eta bigarren sektorearen dibertsifikazio hori ezaugarri nagusietako bat izan, aipatu behar da adar batzuk besteak baino garrantzitsuagoak izan zirela. Horien artean nabarmentzen dira sektore siderometalurgikoa, paperarena, armagintza industria eta baita ehungintzaren edo elikagaien azpisektorea ere. Gainera, aipagarria da ur-errekurtsioen gainean egin zen ustiaketa, industria-gune asko ibai nagusien arroetan kokatu zirelarik: Oria, Deba, Urola, Urumea... (Catalan, 1990, 134 or.).

Behin industria gipuzkoarrak izango dituen ezaugarriak aipatuta, XIX. mendearen berrogeigarren hamarkada horretatik aurrera izango duen garapena aztertuko dut laburki, 36ko gerraren bezperara zein egoeratan iritsiko den azaldu asmoz. Aipaturiko faktoreez

gain, zinez garrantzitsua izan zen 1860. hamarkadako beste gertakari bat industria berri hauen garapenerako: trenbide sarearen eraikuntza. Horrek, probintziak Espainiako beste puntu garrantzitsuekin zituen komunikazioak hobetzeaz gain, haranen arteko komunikazioa erraztu zuen (nahiz eta hori apurka-apurka eta geroago gertatuko zen), kostuak murriztuz eta barne merkatu bat sortzea ahalbidetuz. Gertakari horrekin bat eginez, Beasainen *Fábrica de Hierro San Martín* sortuko da, zeina denboraren poderioz *CAF* enpresan bihurtuko baitzen, metalgintzaren sektoreko industria gipuzkoarraren paradigma izango zena. Horrekin batera, XIX. mendearen azken hamarkadan beste gertakari garrantzitsu bat jazo zen: 1891ko muga-sarien legea onartu zen. Lege horrek, nazioarteko joerei jarraituz, muga-sariak igo zituen eta Espainiaren joera ekonomikoa protekzionismoarekin uztartu zen. Horrek, mesede egin zien sortzen ari ziren industria berriei, euskaldunei barne, kanpoko herrialdeen kompetentzia modu nabarian murriztu baitzuen (Valdaliso, 2013, 154 or.).

Ondorengo urteetan, bigarren sektoreak bere hazkundearekin jarraitu zuen, zeina erlatiboki mantsoa baina jarraia izan baitzen. Mende aldaketarekin, azelerazio bat gertatu zen, batez ere Lehen Mundu Gerraren garaian antzemango zena. Modu honetan, 1915erako, 534 industria zentro egongo dira probintzian, 18603 langilek egingo dutelarik lan bertan (Castells eta Luengo, 1988, 259 or.). Datu horiek industriak jada zenbaterainoko garrantzia izango zuen ematen digute aditzera, populazio aktiboaren portzentajerik altuenak bertan egingo baitzuen lan. Gainera, 1915ean 534 enpresa industrial baziren, 1923an 1445 zeuden jadanik, kantitatea ia hirukoiztuz (Gonzalez Portilla, 1988, 183 or.). Horrek, bigarren sektore gipuzkoarraren beste ezaugarri baten berri ematen digu: oro har, enpresa txiki eta ertainek osatu zuten (eta osatzen dute) industria-sarea. Kapital erlatiboki txikia erabili zen fabrika hauen sorrerarako, izan ere, garaiko tamaina handiko enpresa gehienak probintziaz kanpoko kapitalarekin egon ziren finantzatuta (*La Papelera Española* edo *Sociedad Española de Construcciones Metálicas* kasu), salbuespenak egon ziren arren (*Unión Cerrajera*, esaterako).


Lehen Mundu Gerrarako bide honetan, aipaturiko eraldatu metalikoen sektoreaz gain, papergintzaren sektorea da bereziki aipagarria industriaren garapenean. Izan ere, urte gutxiren buruan, Gipuzkoak Espainiako paper ekoizpenaren %60a bereganatu zuen, hainbat faktore zirela medio. Alde batetik, aipagarria da Brunet bezalako enpresari familien parte hartzea, hasierako urteetan behintzat, prozesu honetan aitzindari izan baitziren probintzian. Bestalde, ez da gutxietsi behar Gipuzkoaren kokapenak

papergintzari eskaintzen zizkion abantailak beste espainiar lurraldeekiko. Izan ere, 1870tik aurrera, eskandinaviar oreak inportatzen hasi zirenean, probintziak kokapen pribilegiatua izan zuen Espainian zituen lehiakide nagusiekiko, Katalunia eta Valentziarekiko, alegia (Catalan, 1990, 127 or.). Protagonista nagusienetako bat papergintza izanik ere, gainontzeko kontsumo ondasunen industriak ere ez ziren atzera geratu. Ehungintzari dagokionean, fabrika anitz sortu ziren probintzia osoan zehar eta denek izan zuten ezaugarri komun bat: ibai nagusien arroetan zeuden kokaturik. Modu honetan, bai Bergaran (Deba ibaia aprobetxatuz), bai Andoainen (Oria ibaia aprobetxatuz sortu zen *La Algodonera Guipuzcoana*, 500 eta 600 langile artean izan zituena) enpresa garrantzitsuak sortu ziren, baina baita Azkoitia edo Tolosan ere (Urola edo Oria beraren arroetan, hain zuzen). Azkenik, elikagaien industria nahiko garrantzitsu bat sortu zen Donostia eta haren inguruko herrietan, eta horrek, aurretik aipatutako industrien izaerarekin batera, Gipuzkoa kontsumo ondasunetan oinarritu zela esatea ahalbidetzen digu.

Esan bezala, Lehen Mundu Gerrak, Robert B. Marks bezalako historialarien terminologia erabiliz (Marks, 2015, 28 or.), “abagune” bat eman zion industria gipuzkoarrari (lehenago probintziaren kokapenak papergintzari eman zion bezala) eta oro har ekonomia espainiarrari hazkunderako. Espainiaren neutraltasunak gerratean, industriaren hazkundera ekarri zuen, gerran zeuden herrialdeen ekoizteko eta esportatzeko zailtasunak zirela-eta. Hala ere, azpimarratu behar da ekonomiaren beste alorrei ez ziela mesederik egin egoera berri horrek (soldata errearen jaitsiera jazo zen prezioen igoeraren ondorioz, esaterako), industriaren ikuspegitik hazkunde, metaketa eta dibertsifikazio garai bat izan zen. Arestian aipatu bezala, enpresen eraketak gora egin zuen, eta ondorioz, baita bertako langile kopuruek ere. Era berean, kapitalen metaketa nabari bat gertatu zen epealdi honetan, eta sozietate anonimoak modu nabarmenean sartu ziren enpresa berriak egituratzera (Castells eta Luengo, 1988, or. 264).

Bestalde, aipatzekoa da sektore guztiek ez zutela garapen berdina izan garai horretan. Esaterako, une oparoa izan zen metalgintzarekin erlacionatutako alorretzat. Armagintzan jardun zuten enpresentzat garai errentagarria izan zen eta 1876-1918 urte tartea “urrezko aro” bezala ikusia izan da (1. Grafikoa). Hala ere, gerraren lehen momentuetan, ekonomiaren paralizazioa zela-eta, krisialdian sartuko da sektore hori. Behin esportatzeko debekuak kenduta 1915ean, ekoizpena berreskuratu egingo da, krisialdi horren aurreko ekoizpen mailetan kokatuz (Goñi Mendizabal, 2005, 22 or.).

Eibarko armen ekoizpena: 1881-1920



Iturria: Castells eta Luengo, 1988, 258 or.,

1. Grafikoa: Eibarko armen urteroko ekoizpena, arma labur eta luzeen kopuruak batuta 1881-1920

Ostera, behin gerra amaituta, eskariaren bat-bateko beherakadarekin eta legedian eman ziren aldaketekin, birmoldaketa eta dibertsifikazio bat jasan zuten Eibarko arma industria askok, eta bizikletak bezalako produktuak ekoiztera pasatu ziren, *Orbea* enpresaren kasuan bezala. Langileen arma kooperatibak ere dibertsifikaziora bideratu ziren, *Alfa* kasu, josteko-makinak ekoizten hasi zena (Goñi Mendizabal, 2009, 88 or.). Bestalde, lehengaiak lortzeko zituzten zailtasunek, ez zioten mesederik egin ehun industriari. Hala ere, eta oro har, garai oparo bezala ikusi behar dugu 1915tik aurrerako garaia, batez ere 1920rako, zeinetan hazkunde ikusgarria izan baitzuen gipuzkoar industriak.

Joera positibo horren aldaketa, eta gerraosteko krisi laburraren ondoren, 1930. hamarkadan nabaritu zen, euskal ekonomiak, beste munduko ekonomia gehienak bezalaxe, atzeraldi sakona pairatu baitzuen, kanpo ekonomiarekin lotuta zeuden sektoreetan batez ere (Bizkaiko sektore siderometalurgikoaren kasua izango da). Hala ere, esan behar da, espainiar ekonomiak jasan zuen krisialdia ez zela izan munduko beste ekonomia askok jasan zutena bezain larria, eta ezaugarri propioak ere izan zituela. Horren arrazoietakoa bat Primo de Riveraren urteetan (1923-1930) burutu zen politika ultra-

protektionista izan zen: Espainiak hartu zituen neurri sasi-autarkiko horiek 29ko krakaren ondorioak modu ez horren bortitzean jasatea ahalbideratu zuen (Miralles, 1988, 277 or.). Aipatzekoa da diktaduraren urteetan lan publikoetan eta azpiegituretan inbertitzeko hartu zen politikak mesede egin ziola bigarren arlo gipuzkoarrari, bi sektoreri batez ere: eraikuntzari eta siderometalurgiari, eta horiei hertsiki lotuta zeuden adarrei (porlanarenari, esaterako). Era berean, krisialdiak eta Errepublika garaian eman zen politika aldaketak gehien kaltetu zituzten sektoreak izan ziren.

Bigarren sektore gipuzkoarrari dagokionean, aipatzekoa da ez zuela Bizkaiak bezainbeste pairatu krisialdi garai hau, Bizkaian siderometalurgiaren pisua ia hegemonikoa baitzen eta sektore horretan krisia oso sakona izan baitzen. Alabaina, siderometalurgiaren krisialdi orokorrak Gipuzkoan ere izan zuen eraginik, ordurako pisu gehien zuen sektorea baitzen probintzian, eta sektore horri lotuak egon ziren garaiko industriaren zailtasunik handienak: CAFek, esaterako, 1931an 2200 langile edukizetik 754 edukitzera igaro zen hiru urte eskasean (Legorburu Faus, 1991, 368 or.). Arazo nagusienak bi izan ziren: eskariaren beherakada eta lan-kostuen gorakada. Armen industriari dagokionean, Lehen Mundu Gerra garaiko ekoizpen mailak ez ziren berreskuratu eta merkatuen bila jardun zuten garai honetan Eibarko arma enpresek. Paper industriarentzat ere ez zen garai erraza izan, enpresen gaitasunaren %63an soilik ekoitziko delarik, esportatzeko arazoak eta beste herrialdeen kompetentzia zirela-eta. Azkenik, ehungintza sektoreak ere beherakada nabarmena jasan zuen, kanpo merkatuenganako zuen dependentziaren ondorio. Beste sektore batzuk ere, porlanarena (eraikuntzarekin hertsiki lotua) edo kimikarena kasu, krisialdian egon ziren garai honetan.

Aipagarriak dira, era berean, *Bases de Trabajo* izeneko legediaren eraginak garai honetan. Gobernu errepublikarrean hartutako neurri ezberdinek dute izen hori eta langileen lan baldintzak hobetzeko lege multzoa izan ziren. Ordea, garaiko enpresariak kexu izan ziren, ekoizpen kostuak handitzen zituelako eta legedia honi atxikitu zioten enpresa askoren porrota. Ondoriozta dezakegu beraz, krisialdia mundu mailakoa bezain sakona ez izan arren, krisialdi orokortu bat egon zela 1930-1936 artean, arrazoi ezberdinak zirela medio. Testuinguru ekonomiko honetan iritsiko gara XX. mendeko lehen aldaketa handira, Gerra Zibilera, alegia (Legorburu Faus, 1991, 380 or.).

Industria gipuzkoarra frankismoaren atarian: Gerra Zibileko egoera

1936ko arrakastarik gabeko estatu kolpeak Gerra Zibila piztea eragin zuen Espainian. Honenbestez, egitura eta joera ekonomiko guztiak hankaz gora jarri zituen gertaera baten aurrean gaude. Ondorengo lerroetan, gertakari honek industria gipuzkoarrean izan zituen eraginak gainbegiratzeko saiatuko naiz, bigarren sektorea frankismoko urteetara nola iritsi zen jakin asmoz.

Hasteko, kontuan hartu behar dugu, kostako bi euskal probintziak, Bizkaia eta Gipuzkoa, bi gobernuren menpe egon zirela gerran zehar. Gipuzkoari dagokionean, bi hilabetez soilik egon zen gobernu errepublikarraren aginduetara, 1936ko urrirako ia probintzia guztia nazionalen eskuetan baitzegoen. Kontuan hartzekoa da datu hau, ez industriari dagokionean egon ziren aldeengatik gobernu baten eta bestearen artean (gainera denbora tarte oso laburra da industriaren garapena aztertzeko gobernu errepublikarraren menpe), baizik eta Gipuzkoa *provincia traidora* bezala ikusiko delako frankismoan zehar. Horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, gobernu frankistaren aldetik diru laguntzak eta inbertsioak jasotzerako orduan ez zion mesederik egin probintziari.

Gobernu errepublikarraren esanetara egon zen denbora tartean industriaren inguruan ditugun datu gehienak Eibarko arma industriari dagozkio. Gerra hasi bezain pronto, gobernu errepublikarrak Eibarko eta inguruetako arma lantegien gaineko kontrola hartu zuen. Behin frontea Eibar inguruan egonkortu zenean, euskal gobernuak lantegi horiek frontetik urruntzea erabaki zuen, Bizkaira alegia; *Bonifacio Echeverría* fabrika, esaterako, Deriora eraman zen. Bestalde, 1937an, kostaldeko bi probintziak erortzean, gobernu nazionalak antzeko jokaera izan zuen. Goñiren hitzetan: “En 1937, tras la ocupación de la totalidad del País Vasco por las tropas franquistas, el ejército se incautó de la maquinaria y piezas de muchas de las empresas del sector mientras que otras, como por ejemplo *Unceta y Cía.* de Gernika, que no se había visto afectada por el bombardeo de la villa foral, continuó fabricando armamento aunque ahora para el bando nacional.” (Goñi Mendizabal, 2005, 33 or.). Kontuan hartu behar dugu, 30. hamarkadatik zetorren krisialdia errepublika garai guztian pairatu zuela gipuzkoar industriak, baita gerrakoan ere.

Bestalde, behin probintzia nazionalen esku geratu ostean, bigarren sektore gipuzkoarrak nahiko ekoizpen altuak izan zituen adar guztietan, Errepublikaren gobernupeko ekoizpenak hirukoiztuz kasu askotan. Benetako tendentzia aldaketa bat gauzatu zela esan

daiteke beldurrik gabe. Horrela, estatu mailako armagintza erdigune nagusia bilakatuko zen Gipuzkoa, eta honenbestez, Eibar: 300 milioi pezeta inguruko balioa zuen materiala ekoitzi zen armada frankistarentzat. Metalgintzak ere nahiko ekoizpen esanguratsua izan zuen 1937tik aurrera, lehengaiak modu egonkorrean sartzen hasi zirenean Gipuzkoan. Horrela, *CAF* edo *Unión Cerrajera* bezalako enpresa garrantzitsuen ekoizpenak gora egin zuen eskari militarra zela medio. Papergintzak ere, gobernu nazionalaren menpe, hazkunde nabarmena izan zuela esan dezakegu, %29 hazi baitzen sektorearen ekoizpena. Horietako enpresa asko militarizatuak izan ziren eta haien ekoizpena propagandako egunkarietara bideratu zen. Ordea, gabezia batzuk ere aipatzekoak dira, askotan inportazio eskandinabiarreko oreen falta egon baitzen (joera hau hurrengo urteetan sakondu egin zen eta papergintzak egoera latza biziko zuen frankismoko lehen urteetan, ikusiko dugunez). Zementuaren eta eraikuntzaren sektoreek ere hazkunde nabarmena izan zuten 1937tik aurrera. Gipuzkoan, *Cementos Rezola* enpresa izango dugu paradigma, zeinaren ekoizpena nabarmen hazi baitzen epealdi honetan, gerrak eragindako berreraikitze beharrak zirela-eta. Azkenik, ehun eta larruen ekoizpenak ere gora egin zuen Gipuzkoan epealdi horretan eta bando nazionaleko ekoizle garrantzitsuenetakoa izatera heldu zen. Sektore horietan guztietan aipagarria da gobernu nazionalak europar potentzietan izan zuen harremana, haien lehengaien inportazioei esker berraktibatu baitziren hein handi batean industria horiek guztiak, batez ere siderometalurgikoa eta zementuarena (Catalan, 2005, 45-46 or.).

Ikusi dugunez, Gerra Zibilak, sekulako eragin dinamizatzailea izan zuen Gipuzkoako probintzian, Espainian gehienetakoa hazi zen probintzia izan zelarik. Hazkunde hori, gainera, orokortua izan zen industriari zegokionean, sektore guztietan ikus baitaiteke hazkunde nabarmen bat. Horrez gain, ordura arte oso garrantzitsuak ez ziren sektoreak ere nabarmentzen hasi ziren, elektrikoa esaterako.

Frankismoko lehen urteak: bigarren sektore gipuzkoarra Espainia autarkikoan (1939-1959)

Francoren garaipenaren ostean, aro berri bat ireki zen Espainiaren historian, frankismoa bezala ezagutzen dena. 1939ko garaipenaren ostean Francoren erregimenak hartutako politikak direla eta, 1959ra arte luzatzen den epealdiari aro autarkikoa deitzen zaio. Izan ere, frankismoak, autarkia ekonomikoa izan zuen lehen helburu handitzat, gisako

erregimen guztien antzera. Epealdi hau, esan bezala, 1959ra arte luzatuko da, noiz Opus Deiko teknokratik sartuko diren gobernuan eta erregimenaren nolabaiteko irekiera gertatuko den, frankismoaren bigarren aroari hasiera emanez. Lehen zati honetan, beraz, industria gipuzkoarrak 1939tik 1959rako epealdian izan zituen gorabeheraz arituko gara, baita garaiko ekonomia baldintzatu zuten faktoreez ere. Bigarren sektore gipuzkoarra aztertzen hasi aurretik, ordea, beharrezkoa iruditzen zait gobernu frankistak probintziarekiko izan zuen jarrera aztertzea. Izan ere, botere guztiak Madrilen kontzentratzean, pisu handia izango zuten bertan hartutako erabakiek.

Epealdi honetako politika ekonomikoaren ezaugarri nagusiak bi izango dira: batetik, autarkiaranzko joera ekonomikoa, eta, bestetik, Estatuaren interbentzionismoa. Hori guztia erregulatzeko, sindikalismo bertikal baten sorrera eman zen (García Crespo *et al.*, 1981, 45 or.). Badirudi, hala ere, motibazio politikoek garrantzia handiagoa izan zutela ekonomikoek baino autarkiarako joera hartu zenean. Izan ere, Ardatzeko potentziak babesteko hautua egin zenean, pentsa daiteke autarkia izan zela aukeratu zitekeen modelo ekonomiko bakarra. Horri, gainera, herrialdearen egoera kaskarra eta nazioarteko blokeoa gehitu behar dizkiogu erabaki hori hartzerako orduan. Badirudi, ordea, 1951tik aurrera erabaki politikoa izan zela batez ere. Mendizabal eta Serranok diotenez: “En la primera década los factores exteriores tuvieron gran importancia, pero la autarquía era, en sí misma, una idea atractiva para quienes dirigían la política económica; en la siguiente década es difícil hablar de factores exteriores que obligan a la autosuficiencia; nuestra política económica fue autárquica por inercia y por decisión de las autoridades” (Mendizabal eta Serrano, 1987, 302 or.). Modu berean, eta eskala nazional batean, estatuaren interbentzionismoa ere ideologiak behar ekonomikoek baino gehiago baldintzatu zuela esan daiteke. Izan ere, logikoena, ikuspuntu ekonomiko batetik, inbertsioak jada industrializatutako eremuetan egitea zen, Euskadin eta Katalunian hain zuzen, eskala eta hedadura-ekonomiak sortzeko helburuarekin. Ordea, deszentralizazioaren aldeko neurriak bultzatu ziren. Hartutako politika hauen guztien buru *Instituto Nacional de Industria (INI)* egon zen, zeina industrializatu gabeko eremuetan pizgarriak emateaz arduratu zen, industria berriak sortzeko asmoz. Oro har, esan daiteke, planak porrot egin zuela. Ez Gipuzkoak eta ez Bizkaiak ez zuten laguntzarik jaso *INI*ren aldetik, baina bai, oster, Arabak (García-Zúñiga, 2009, 97 or.). Ondoriozta dezakegu, beraz, pisu gehiago izan zuela *provincia traidora* izateak industria garatu bat izateak baino. Hots, ideologiak pisu handiagoa izan zuela neurri ekonomikoak hartzerako

orduan ekonomiak berak baino. Ikusi dugun bezala, 1937-1939 epealdian industria gipuzkoarrak hazkunde nabaria izan zuen. Alabaina, autarkiaren garaian, lehen urteetan batez ere, zailtasunak ere horrelakoak izan ziren, jarraian ikusiko dugun bezala. Bigarren sektore gipuzkoarraren azterketarekin sartu aurretik baina, beharrezkoa da pare bat kontu aipatzea. Hasteko, gerra osteko lehen urteetako datuen eskasia nabarmena da, hala industria ekoizpenari dagokionean, nola beste sektoreei dagokienean ere. Bestalde, autarkiarako joera horrek, hasierako urteetan behintzat, lehen sektorea bultzaraztea eragin zien gobernuko kideei (Alemaniaren esku geratuko zen industriako makinaria ekoiztea), industriak izan zituen zailtasunak areagotuz (Mendizabal eta Serrano, 1987, 302-303 or.).

Industriaren azterketarekin hasteko, autarkia bera izango dugu berriro ere hizpide. Lehen urteetan hartu ziren neurri ultraprotekzionistek, industria gipuzkoarrari (industriari oro har) kalte egin zietela esan dezakegu. Izan ere, Espainia bere baitan itxi zen, hala inportazioak nola esportazioak nabarmen murriztuz. Esportazioen jaitziera horrek, ez zuen eragin berezirik izan industria gipuzkoarrean, ez baitzuen kanpo eskariarekiko menpekotasun handirik. Gainera, sektore estrategiko batzuek, armagintzak kasu, Ardatzeko herrialdeei armak esportatzen jarraitu zuten Bigarren Mundu Gerra amaitu arte bederen (Goñi Mendizabal, 2009, or. 91). Esan daiteke, benetako arazoa industria gipuzkoarrarentzat, inportazioen jaitziera bortitza izan zela. Arestian aipatu bezala, probintzia lehengaietan eskasa zen, eta inportazioen beharra zuen bere sektore nagusiak elikatzeke, siderometalurgia edo papergintza, kasu. Ikusi dugun bezala, Gerra Zibilean zehar, Alemaniak hornitu zuen bando nazionala lehengai horiez, baina behin gerratea amaituta (eta Bigarren Mundu Gerra hasita), inportazioen beharakada nabarmena izan zen. Gainera, ardatzeko potentzien porrotarekin, Espainia isolaturik eta blokeaturik geratu zen 1951 arte. Horrek guztiak industria gipuzkoarrari nabarmen erasan zion eta enpresa gehienak euren ekoizpen gaitasunen azpitik ekoitzi zuten epealdi honetan, lehen urteetan batez ere.

Jarraian, sektore garrantzitsuenek garai honetan izan zuten bilakaera aztertuko dut, desarrollismoaren arora nola iritsiko diren jakiteko asmoz. Aurretik, ordea, aipagarria da gerra-suntsipenari kasu egitea. Esan beharra dago, Gipuzkoaren kasuan (eta baita Bizkaiarenean ere), gerra-suntsipenek ez zutela garrantzia handirik izan hurrengo urteetako industriaren martxa nekezan. Izan ere, eta suntsipen horiek gertatu ziren arren, erlatiboki txikiak izan ziren EAJ-k hartutako politikaren ondorioz. Alderdi nazionalistak, lurraldea galdu ahala, industria ez suntsitzea hobetsi zuen eta gerra ekintzez aparteko

sabotaiarik ez zela egon esan daiteke industria makinaria eta enpresei zegokienean. Beraz, bigarren sektore gipuzkoarraren zailtasunak hartutako neurriekin lotu beharko genituzke gehiago, industriaren aurkako ekintza zuzenekin baino (Jubeto *et al.* 2002, 39 or.).

Bereziki larria izan zen kontsumo-ondasunen industriaren egoera, zeina ikusi dugunez, bigarren sektore gipuzkoarraren zati garrantzitsua baitzen. Izan ere, ahalegin ekonomikoak eta diru laguntzak sektore militar eta autarkikoetara bideratzean, ia inongo laguntzarik gabe utzi ziren aipaturiko adar horiek, Donostia inguruko elikagaien industriak, esaterako. Azkenik, aipagarria da garai hori ere bi zatitan banatu daitekeela. Izan ere, 50. hamarkadatik aurrera, aldaketa nabarituko da nazioarteko harremanetan. Kontuan hartu behar dugu, epealdi honetan Gerra Hotza deiturikoa hasiko zela bloke kapitalista eta komunistaren artean. Espainia frankistaren izaera antikomunistak, aislazionismo horretatik irteteko modua eman zion. Modu horretan, bloke kapitalistako zenbait herrialderekin harreman komertzialak berraktibatu ziren, elkartruke komertzialak igoz, esaterako. Esan daiteke, beraz, 1951ra arte autarkia “nahitaezkoa” izan zela. Urte horretatik aurrera, ordea, eta are gehiago 1953ko Estatu Batuekiko akordioaz geroztik, erabaki politiko bat gehiago izan zen ekonomikoa baino, eta, autarkiak aurrera jarraitu bazuen ere, hazkundea antzeman zen. Ondorioztatu dezakegu, beraz, autarkiak berak eragin gehiago izan zuela atzerapen ekonomikoan beste faktoreek baino. García Crespo eta enparauk diotenez: “Recordemos también que, una vez probado que la crisis industrial no se debió a las destrucciones bélicas (...) sólo puede explicarse en función de la escasez de materias primas y de energía, escasez que se logra vencer precisamente en el bienio 50-51” (García Crespo *et al.*, 1981, 62 or.).

Sektorekako azterketarekin hasteko, lehenbizi metalgintzari egingo diogu so. Sektore horri dagokionean, faktore garrantzitsuenetako bat inportazioen murrizketa eta Ardatzaren porrotaren osteko isolamendua izan ziren. Inportazioen dependentzia handia zuen sektorea zenez, txatarraren beharrari zegokionean, esaterako, nabarmen erasan zion gobernuaren politika autarkikoak. Gainera, berehala gertatuko ziren sektore honentzat horren garrantzitsua zen elektrizitatean hornidura-arazoak. Bestalde, sektore nahiko estrategikoak izanik, diru-laguntzak jaso zituzten metalgintzaren adar ezberdinetako industrietan. Alabaina, kontuan hartzen badugu Espainiako metalaren ekoizpena %3.5 jaitsi zela 1940 eta 1945 urteen artean (horren zati oso garrantzitsu bat Hego Euskal Herriko kostako bi probintzietan gauzatzen zen), pentsatzekoa da ez zela oso garai oparoa izan metalgintza gipuzkoarrantzat (Jubeto *et al.*, 2002, 43 or.).

Horietako enpresa askok, CAFek esaterako, nabarmen jaitsi zuten euren ekoizpena, nahiz eta eskaria egon bazegoen, ekoizpenerako materialaren falta zela-eta. Antzeko zerbait gertatu zen gainontzeko adarretan ere. Gobernuak metalgintzaren ekoizpena mugatu zuen kupoen bitartez eta enpresa horietako askok euren gaitasunaren %40an soilik ekoitzi zuten urte hauetan (Mendizabal eta Serrano, 1987, 306 or.). 1951an, nazioarteko harremanak berreskuratzen hasi zirenean, egoerak hobera egin zuen, inportazioek gora egin zuten neurrian. Hala ere, eta ekoizpenaren beherakadak beherakada, aipatu behar da 1935ean izan zituzten irabazi errealak 1943rako gaindituak zituztela metal eraldaketako industria askok, gerra suntsipenen ondorioz sortu zen eskaria zela-eta. Hau izango da *Unión Cerrajera* edo *CAF* beraren kasua (Catalan, 2009, 200 or.).

Armagintzaren kasuan, onartu behar den arren hasierako urteetan ardatzeko potentziak hornitzeko aukera izan zutela Eibar inguruko industriek, esportazio horiek ez zuten garrantzia handirik izan ez kuantitatiboki, ezta kronologikoki ere. 1946ean euren gaitasunaren %25ean ari ziren ekoizten, gobernuak debekatu egin baitzuen arma laburren ekoizpena armada espainiarrarentzat ez bazen. Gainera, 1944tik, hiru enpresen esku geratu zen arma laburren ekoizpena, lege baten ondorioz. Lege horren esanetan, enpresak ziklo produktibo osoa perimetro itxiko eremuan bete behar zuen. Enpresa hauek *Gabilondo y Cía.*, *Bonifacio Echeverría* eta *Unceta y Cía.* izan ziren (azken enpresa hori bizkaitarra zen arren, Eibarreko arma industriarekin erlazio zuzena zuen) (Goñi Mendizabal, 2005, 33 or.). Lege horren ondorioz, arma enpresa askok urte batzuk lehenago hasitako dibertsifikazioan sakondu zuten eta bestelako produktuetan zentratu zuten euren ekoizpena. Ehizarako arma luzeen kasuan, nahiz eta printzipioz aldeko testuingurua zuten, gerra osteko egoerak ez zuen ahalbidetu egoera hori aprobetxatzea. Paragrafoaren hasieran aipatu bezala, gerra osteko aislazionismoak, armak soilik merkatu nazionalera bideratzea eragin zuen, haien ekoizpena nabarmen murriztuz. 1946an, armada espainiarrak pistola ofiziala zein izango aukeratzeko konkurtsoa deitu zuen, zeina *Bonifacio Echeverría* enpresak irabazi baitzuen STAR pistolarekin, beste enpresak kinka larrian utziz. Beste enpresek dibertsifikaziorako bidea hartu zuten, *Unceta y Cía*k esaterako.

Badirudi egoera larri hori 50eko hamarkadan aldatzen hasi zela. Horren arrazoi nagusia esportazioen areagotzea izan zen, zeinetan Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eragin handia izan baitzuen. Instituzioen laguntzaz, baldintza onuragarriagoak eman ziren enpresa horientzat eta ekoizpenak nabarmen egin zuen gora. Egoera berri horretatik

etekin gehien atera zuten sektoreak arma laburrena eta josteko makinena izan ziren. Armagintzak hobera egin zuen arren, arazo berri batzuk ere sortu ziren, 60. hamarkada aztertzean ikusiko dugun bezala (Goñi Mendizabal, 2009, 92 or.).

Papergintzari dagokionean, egoera ez zen oso ezberdina izan. Gipuzkoan, lanean ziraute enpresek, ore nazionala erabiliz egiten zuten. Horiek, ore eskandinaviarrak ordezkatzeko bultzatutako enpresek ekoizten zituzten, baina ez ziren nahikoa izan enpresa guztiak hornitzeko. Modu horretan, 1942an esaterako, ore nazional horiek erabiliz 39000 tona ekoitzi ziren (ekoizpen ahalmenaren %64a). Ostera, 1935ean, ore eskandinabiarrak erabiliz, 61000 tona ekoitzi ziren. Papergintza izan zen autarkiaren garaian arazo gehien jasan zituen sektorea, inportazioen dependentzia handia baitzuen. Halere, egia da, inportazio horiek urritzean, ore horiek egiteko behar ziren enpresen agerpena eman zela, industria kimikoan batik bat; *Electroquímica de Hernani* enpresaren sorrera testuinguru honetan kokatu behar dugu. Garai honetakoak dira halaber horren famatuak izan ziren ibai ezberdinen kutsaduren areagotze larriak, hemengo sektore kimikoek ekoiztutako produktuek eraginak hein handi batean, pinudien eta bestelako hazkunde azkarreko arbolen landaketen zabalkuntza bezala, Gipuzkoako landagunean (Michel, 2006, 82 or.). Sektore horri ere, besteei bezala, 1951ko irekierak mesede egin ziola esan dezakegu (Catalan, 2009, 204 or.).

Azkenik, garai honetan hasi zen fenomeno garrantzitsu bati begiratu behar diogu. Izan ere, Gipuzkoan sortzeaz gain, eredu erabat ezberdina proposatzen zuen enpresa proiektu bat izan zen: Arrasateko kooperatibismoaz ari gara. Nahiz eta Gipuzkoan beste langile kooperatiba batzuk existitzen ziren ordurako (aipatutako *Alfa* adibidez), 1950. hamarkadatik aurrera egituratu zen etorkizunean *Corporación Mondragon* bezala ezagutuko dena. Izan ere, garai honetan sortu zen *ULGOR* kooperatiba Arrasaten, 1956an hain zuzen, ondoren *FAGOR* bezala ezagutuko dena. Etxetresna elektrikoek ekoizpena bideratu zen enpresa hori eta laster hartu zuen adar horrek bigarren sektore gipuzkoarrean garrantzia erlatiboki handia. Horrekin batera, kooperatiben kantitateak gora egin zuen nabarmen urte gutxian (Azurmendi, 1992, 27 or.). Hala ere, autarkia amaitu baino hiru urte eskas sortu zenez kooperatibismoaren fenomenoak, *desarrollismoaren* barruan aztertuko dugu zati hau, garai horretako koiuntura ekonomikoarekin harreman gehiago dituela deritzogulako.


Inportazioen debeku horrez gain, beste faktore garrantzitsu bat industria gipuzkoarraren epealdi zail honetan, lan esku kualifikatuaren galera izan zen. Gerrak, proportzionalki hildako kantitate handiak eragin ez zituen arren, erbesteratuen zein *garbiketa* politikoaren ondorioz lanpostuak galdu zituztenen kopurua handia izan zen, eta enpresa horiek bete-betean funtzionatzeko behar zituzten jakintza teknikoak galdu egin zirela esan dezakegu, hein handi batean behintzat. Catalanen hitzetan: “Gerra Zibilak euskal ekonomian izandako ondorioak hirutara bil daitezke: lan eskaintza gutxitzea; kapital ondasunak suntsitzea, eta erbesteratu eta errepresaliatuen ezagutza teknikoak galtzea. Lehen bi faktoreen garrantzia mugatua izan zen (...); azkenak, berriz, besteek baino eragin kaltegarriagoa eta iraunkorragoa izan zuen Euskal Herriaren garapen prozesuan” (Catalan, 2009, 197 or.). 1951an, Europarekiko eta mundu kapitalistarekiko harremanak hobetu zirenean, metal eraldaketan zebiltzan enpresa ezberdinak izan ziren onuradun nagusiak. 1959ra arte, hazkunde garai bat bizi izan zen, nahiz eta oraindik autarkia politika horrek iraun zuen. Kontuak kontu eta euskal ekonomia atzeratu bazuen ere, autore batzuen aburuz, autarkia bera faktore industrializatzaile bat izan zen, oro har, ekonomian: “Dentro del contexto de la época, y con todas las limitaciones que iremos señalando, la autarquía aparece como un factor impulsor de la industrialización en el periodo 39-59” (García Crespo *et al.*, 1981, 46 or.). Nahiz eta baieztapen hori zalantzarria den 40. hamarraldiari dagokionean, egia biribila da 50. hamarkadatik aurrerako koiunturan (egile batzuek “giltzarri-hamarkada” deitzen duten horretan) Gipuzkoak industrializazioan aurrera egin zuela.

***Desarrollismo*-ko hazkundera: industria gipuzkoarra espainiar mirarian (1959-1973)**

1959ko Egonkortze Planaren ostean, epealdi berri bat zabalduko da frankismoan, *Desarrollismo* bezala ezagutua historiografian. Garai honetan sartuko dira gobernuan *Opus Dei*-ko teknokratak, Egonkortze Plan hori bultzatuko dutenak, hain zuzen. Plan horren helburuak, labur esanda, hauek izan ziren: alde batetik, izenak dioen bezala, espainiar ekonomiaren egonkortasuna bilatu zen, ekonomiak zuen defizit ikaragarria jaisteko asmoz batez ere; beste alde batetik, ekonomiaren (eta zentzu batean baita erregimenaren) liberalizazioa bultzatu zen, estatuaren interbentzionismoa mugatuz eta merkataritza harremanak bultzatuz. Hala ere, aipatzekoa da neurri batean estatuaren interbentzionismoak jarraitu egin zuela eta mesede baino kalte gehiago egin ziola

industriari. Álvarez-Llanok dioen bezala: “(...) a pesar de la nueva política liberalizadora, persistiría un espíritu intervencionista que llevará al sistema productivo español, particularmente a la industria, a depender de una maraña de ayudas (...) y que como

Gipuzkoako BPG-aren garapena 1960-1975 (milioi pezeta konstanteetan)



Iturria: García Crespo *et al.*, 1981, 180 or.

2. Grafikoa: Gipuzkoako BPG-aren garapena, 1975ko pezeta konstanteetan: 1960-1975


resultado (...) provocaron el desarrollo artificial de sectores que luego no pudieron resistir ni la crisis de la segunda mitad de los años setenta ni la competitividad exterior cuando llegó la globalización mundial de la economía” (Álvarez-Llano, 2008, 591-592 or). Nahiz eta orrialde hauetan ez dugun sakonduko plan horren xehetasunetan (horretarako ikus Carreras eta Tafunell, 2010, 324-331 or.), saiatuko gara plan horrek gipuzkoar industrian izan zituen eraginak aztertzen. Oro har, industriari dagokionean, liberalizazioa bultzatu zen. Inportazioen gaineko kontrol estua deuseztatzea, truke tasa berri bat ezartzea, atzerriko kapitalaren sarrera onartzea... izan ziren garai honetako hazkundera azalduko luketen ezaugarri batzuk (Jubeto *et al.*, 2002, 46 or). Gaiarekin sartu aurretik, eta epealdia zertxobait testuinguratze aldera, esan behar da une hau izan zela Espainiak bere historia garaikidean izan duen hazkunde garairik handiena, zeina besteak beste, BPGan islatu baitzen (2. Grafikoa). Bertan, espainiar ekonomia %5tik gora hazi zen urtero eta Euskal Herrian hazkunde hori are eta handiagoa izan zen, urterik oparoenetan %6a gaindituz (Catalan, 2009, 205 or).

Halere, ezin dugu ebatzi zein puntutaraino izan zen hazkunde hau arrazoi endogenoen ondorioz eta zenbateraino arrazoi exogenoen ondorioz. Izan ere, garai hau izango da historiagile askok kapitalismoaren *urrezko aro* bezala definitu duten garaia (1945-1975). Mundu kapitalistak, oro har, sekulako hazkundera jasango du bai ekonomikoki, baina baita sozialki ere. Garai horretako ezaugarriak definitzen laguntzeko sortuko dira “ongizate estatua” eta “kontsumo gizartea” bezalako kontzeptuak, kapitalismo sozialago bati bide eman ziotenak. Horregatik, ezin dugu esan epealdi honetako hazkundera zenbateraino den Egonkortze Planaren ondorio eta zenbateraino den mundu kapitalistako koiuntura orokor horren ondorio. Ukaezina dena honakoa da: frankismo *desarrollistari* sekulako mesedea egin zion inguruan zituen potentzia kapitalistak hazkunde garaian egoteak, merkatu handi bat eman baitzion bere ekoizpenaren alor batzuk bideratzeko.

Gipuzkoa ez zen hazkunde honetatik at egon eta industria gipuzkoarraren garapena bere dinamika propioek mugatu zuten soilik. Izan ere, liberalizazio honen ondorioz, *INI*ren politika aldatu egin zen. Garaiko teoria ekonomikoei jarraituz, estimuluak behar zituzten leketan inbertituko du institutuak, eta ondorioz, Gipuzkoa eremu horietatik kanpo geratu zen. Lehen aipatu dugun moduan, aurreko epealdian ere ez zuen ia ekintzarik egin probintzian (Jubeto *et al.*, 2002, 41or.), baina esan bezala, arrazoi politikoak indartsuagoak izan ziren ekonomikoak baino. Kasu honetan, esan daiteke politika ekonomikoak garrantzia handiagoa izan zuela erabaki hauek hartzerako orduan. Aipatzekoa da, garai honetarako, Gipuzkoa izango dela geografikoki industria gehien kontzentratzen zuen probintzietakoa. 42 udalerrik 100 langiletik gorako enpresak izan zituzten epealdi honetan (Mendizabal eta Serrano, 1987, 317 or.). Hori kantitate handia da, Gipuzkoaren hedapen geografiko erlatiboki txikia kontuan hartzen badugu. Epealdi honetan, industria garatzeko tresna gisa, *Acciones Concertadas* delakoak jarri zituen martxan gobernu frankistak. Horien helburua garapen industrialaren bultzatzea zen, ekoizpena eta produktibitatea hobetzeko asmoz. Halere, eta euskal lurraldeetako beste leku eta sektoreetan eragina izan zuten arren (Bizkaiako siderurgian edo ontzigintzan, esaterako), Gipuzkoan ez zuten berebiziko garrantziarik izan. Bestalde, esan beharra dago, *Acciones Concertadas* delako horien bitartez jada helduak ziren sektoreetan inbertitu zela, geroago ikusiko dugun bezala, haien garrantzia erlatiboa handituz eta industria desorekak sortuz, hurrengo hamarkadetan arazo estrukturalak ekarriko zituen zerbait.

Ziurrenik, industriaren hazkunde honetan gehien eragin zuen faktoreetako bat nazioartearekin egon zen lotua: “Atzerriko kapitalen sartzeak, emigranteek igorritako diru-kopuruek eta turismoak sorturiko diru-sarrerek aukera eman zuten kanpoko merkataritza-balantzaren defizitak kitatzeko eta, horrenbestez, industria-jarduerarako behar ziren petrolioaren, ekipo-ondasunen eta lehengaien inportazioa areagotzeko” (Jubeto *et al.*, 2002, 47 or.). Bestalde, giza-kapitalari so egitea ere garrantzitsua da garai honetako industria hazkunde azkarra ulertzeko. Izan ere, immigrazio jario aipagarriak iritsi ziren Espainiako puntu ezberdinetatik, egungo Gaztela eta Leonetik batez ere, hazkunderan zegoen industria euskaldunari are eta azkarrago hazten lagundu zion faktore bat izan zena (3. Grafikoa). Guztira, hirurogeigarren hamarkadan eta kopuru netoetan, Gipuzkoara 64884 pertsonak emigratu zuten, sekulako kopurua dena (Álvarez-Llano, 2008, 597 or.). Gainera, industria euskaldunari hazten laguntzen zion bitartean, jatorrizko eremuetan zeuden langabezia tasak ere jaitsi egin ziren, gero eta altuagoak zirenak nekazaritzan ematen ari ziren aurrerapenen ondorioz (García Crespo *et al.*, 1981, 146 or.).

Migrazio saldoen garapena Gipuzkoan (1965-1975)



Iturria: García Crespo *et al.*, 1981, 147 or.

3. Grafikoa: Migrazio saldoak biztanleetan eta urteko Gipuzkoan: 1965-1975.

Halere, eta garai hau industria gipuzkoarrantzat oro har oso oparoa izan zen arren, hasiera batean zailtasunak izan zituela esan dezakegu. Egonkortze Planaren bezperatan emandako gobernu aldaketak, plan hori abian jartzeko lehen neurriak hartzen hasia zen 1957rako, eta horrek berehalako eragin negatiboak izan zituen bigarren sektore gipuzkoarrean, sektore konkretu batzuetan batez ere. Esaterako, metalgintzarekin erlasionaturiko adarrak edo papergintzarenak jasan zituzten neurri berri horiek, nahiz eta oro har, hasierako kolpe horrek eragindako krisialdia 1962rako aise gainditurik zegoen (Arrieta eta Barandiaran, 2003, 107 or.).

Esan bezala, Gipuzkoa itundutako ekintza horietatik at geratu zenez, garapen propioa izan zuela esan dezakegu. Urte batzuk lehenago sortutako kooperatibismoak garai oparoa biziko zuen garai honetan eta proiektzio gehiena izango zuen sektorea izan zen etxetresna elektrikoena. Izan ere, *ULGOR* kooperatiba sortu zen ia momentutik, sekulako etekinak lortu zituen. Horrek, *ULGOR* kooperatibarekin lotura zuten beste enpresa batzuk sortzeko bide eman zuen, autonomoak zirenak baina neurri batean *ULGORren* zutenak bere merkatuaren zati handi bat (*COPRECI* edo *FAGOR Electrotécnica*, adibidez). Apurka-apurka enpresa bakoitza bere merkatua sortzen joan zen eta esperientzia kooperatibista hedatzen joan zen Arrasate inguruan. Kooperatibismoaren hazkunde hori ezin dugu ulertu hiru elementu egituratzaile gabe: *ULARCO* taldea, Langile eskola eta Laboral Kutxa (Altuna eta Urteaga, 2014, 106 or.).

Langile eskolari dagokionean, elementu garrantzitsua izan zen ondoren kooperatiba ezberdinetan arituko ziren langileak formatzerako orduan. Izan ere, kooperatibismoaren arrakastetako baten oinarria bertan formatzen ziren langile kualifikatuen lan-indarra izan zen, hein handi batean. Arizmendiarreta apaiza izan zen eskola honen fundatzaile eta aita espirituala, eta haren balioen arabera egituratutako gunea izan zen. Kooperatibismoaren lan indarraren zati garrantzitsuena bertatik atera zen hasierako urteetan. Bestetik, Laboral Kutxaren fundazioa 1959an eman zen, *ULGOR* lehen pausoak ematen ari zenean, hari zein beste kooperatibei laguntzeko asmoz. Hori ere Arizmendiarrietaren itzalean jaioa, kooperatibei likidezia emateko sortu zen. Izan ere, enpresa horien izaera zela eta, pentsatzen zen ez zuela ekintza pribaturik lortuko bertan inbertituko zuenik, ezta bankuen laguntzarik ere. Azkenik, *ULARCO* taldea, lehen aipatu ditugun kooperatiba ezberdinen arteko erlazioak egituratzeko sortu zen. Hasiera batean, *ULGOR*, *Arrasate*, *Ederlan*, *Copreci* eta *FAGOR Electromecánica* kooperatibek osatu zuten. Horren helburua kooperatiben elkar laguntza sustatzea zen, bakoitzak bere autonomia galdu gabe. Honen

guztiaren bitartez, enpresa-egitura ezberdina zuen sare industrial bat sortu zen Arrasate inguruetan, gaurdaino dirauena, Gipuzkoak izan zuen garapen industrial autonomo horren paradigma bilakatu zen *desarrollismoko* urteetan.

Oro har, eta kooperatibismoarekin amaitzeko, esan dezakegu fenomeno honek hiru fase ezberdin bizi izan zituela: lehen fasea (1961-1966) hazkunde garai ikusgarria izan zen, zeinetan ekoizpena bikoiztu eta langile kopuruak sei aldiz hazi baitziren; bigarren fasea ere (1967-1974), hazkunde garai bat bezala ikusi behar dugu, nahiz eta aurreko aldiarekin alderatuta, askoz ere moderatuagoa izan zen; azkenik, 1975tik aurrera, krisialdi garai bat ezagutu zuen kooperatibismoak. Laboral Kutxaren laguntzari esker salmentek gora jarraitu zuten arren, bi arazo nagusi agertu ziren: batetik, produktu metalurgikoen ekoizpena aldatu beharra zegoen eta bestetik, birplanteatu egin behar zen ea Espainia izango zen enpresa kooperatiboek ekoiztako produktuen merkatu nagusia aurrerantzean (García Crespo *et al.*, 1981, 196 or.).

Urte haietan aipagarria izan zen beste sektore bat eraikuntzarena izan zen. Egoera hori, autarkiako azken urteetatik edo irekiera garaitik datorren zerbait izan zen. Horrela, 1950-1960 epealdian (erregimena lehenengo aldiz irekitzen hasi zen garaian, beraz) etxebizitzaren eraikuntzek nabarmen egin zuten gora probintzian. Orain arte ikusi ditugun sektore nagusiak ere ez ziren atzera geratu. Papergintzari dagokionean, esaterako, epealdi honetan, espainiar ekoizpen osoaren herena bereganatzen zuten probintziako paper-fabrikek eta sektore horrekin lotura zuen industria kimikoak ere bere ekoizpena bikoiztu zuen 1950-1975 epealdian (Arrieta eta Barandiaran, 2003, 105 or.).

Txanponaren ifrentzua ordezkaturiko zuten sektoreak ere egon ziren. Esaterako, ehungintzaren sektoreak beherakada nabarmena jasan zuen epealdi honetan. Bere aldetik, eraldatu metalikoen sektorearentzat ere ez ziren urterik onenak izan, proportzioan behintzat. Horren adierazle da *CAF* enpresaren eskaria jaitsi izana, *RENFE*ren beherakada zela eta, garraio partikularren (automobilaren) gorakadak eragin zuena hein handi batean (Catalan, 2009, 206 or.). Esan daiteke, oro har, enpresa handienek (eta kuantitatiboki garrantzitsuenek) jasan zituztela urterik kaskarrenak hazkunde testuinguru honetan, euren leihakortasuna jaisten ari zen heinean. Hala ere, eta nahiz eta egia den erlatiboki ez zirela hazi izan beste enpresa asko bezainbeste, ez da ahaztu behar garaiko industrian zuten garrantzia. Izan ere, Gipuzkoan, metalgintzarekin erlazonatutako sektoreak, eraldatu metalikoena tartean, industriako Balio Erantsi Gordinaren %47,4

ekoitzi zuten. Honi, lehen aipatutako industria kimikoa eta papergintza gehitzen badizkiogu, indize horretan, probintziaren BEGaren ia %70 ekoitziko da hiru adar horietan (García Crespo *et al.*, 1981, 237 or.). Horren arrazoietakoa bat berrinbertsioak izan ziren. Izan ere, EAEko hiru probintzietan, metalgintzarekin lotutako adarrak inbertsio horien %64a hartu baitzuten (García Crespo *et al.*, 1981, 248 or.). Gipuzkoan eraldatu metalikoen adarrek zuten garrantzia kontuan hartzen badugu, pentsatzekoa da probintzian ere kuantitatiboki zein kualitatiboki garatutako enpresa horiek jaso zituztela inbertsioen gehiengoa, jarraian azalduko dugun krisialdiaren sakontzearen arrazoietakoa bat izan zena, bigarren sektorean sortu zituen desorekak zirela-eta. Azkenik, aipatzekoak dira probintziaren erdialdean zuraren eta altzarien industriak zuen presentzia, baina baita sektore siderometalurgikoa hartzen hasi zena, Azpeitian *Corrugados Azpeitia S.L.* sortu zenetik behintzat (Ibañez eta Zabala, 2010, 156 or.).

Ondorioak

Hazkunde orokorrak, ordea, bigarren sektore gipuzkoarrak zituen gabeziak ezkutatu zituela esan dezakegu. Horrela, krisialdia iritsi zenean 70. hamarkadaren erdialdean, industria izan zen kalterik handienetakoa jasan zuen sektorea. Izan ere, industria gipuzkoarrari orain arte mesede egin zioten ezaugarriak (enpresa txiki eta ertainek zuten hegemonia, esaterako) faktore garrantzitsuak izan ziren krisialdi horrek eragin handiagoa izan zezan probintzian. Kausa batzuk aipatze aldera, produktibitate erlatiboki baxua edo nazioartera esportatzeko gaitasun txikia izan daitezke arrazoi horietako batzuk. Teknologiaren (eta ereduaren) atzerapena ere aipagarria da; Valdalisoren esanetan: “Gerra Zibilak, lehenik, eta 1940ko urte beltzek, ondoren, geldiarazi egin zuten ekonomia-garapenaren prozesu hori, baina berriz hasi zenean, 1950eko hamarkadan, 1891tik 1936ra garatutako industria-egituran eta ahalmen teknikoan oinarritu zen prozesua, neurri handi batean” (Valdaliso, 2010, 194 or.). Krisialdi horren beste gako bat gobernu frankistak hartutako politika izan zen, zeina eragile zuzena izan ez zen arren, krisialdi hori sakontzen lagundu baitzuen. Izan ere, gobernu frankistak, oraindik garatzeke zeuden industrietan inbertitu ordez eta industria handien garrantzia erlatiboa jaitsi beharrean, garapen orekatu bat bilatuz, inbertitu zuen apurra jada oso garrantzitsuak ziren industrietan inbertitu zuen (papergintzan eta eraldatu metalikoetan Gipuzkoaren kasuan, baina baita ontziola handietan edota siderurgia bizkaitarrean ere). Catalanek

dioenez: “Frankismo berantiarraren industria-politikak mugatu egin zuen herrialdearen etorkizuneko garapen-ahalmena, zeren baliabideak Euskadin ordurako helduak ziren adarretan bildu baitzituen” (Catalan, 2009, 208 or.). Era berean, aipagarria da gobernu frankistak hartutako politika ekonomikoak izan zuen eragina. Nahiz eta politika horiek mesede askorik egin ez zioten probintziari, Gipuzkoako bigarren sektoreak hazteko gaitasuna erakutsi zuen. Ordea, krisialdia iristean, gobernuak hartutako politika horiek, bereziki kaltegarriak izan ziren. De la Torre eta García-Zúñigaren esanetan: “En suma, el papel del Estado y la industrialización fueron claves para el tipo de modelo económico que funcionó en España entre 1960 y 1975 y, más aún, para la larga e intensa crisis posterior” (De la Torre eta García-Zúñiga, 2013, 44 or.).

Ikusi dugunez, industria gipuzkoarra puntako sektore bat izan zen ekonomia espainiarraren baitan. Horrek, ordea, ez zuen ekidin gorabehera handiak izatea epealdiaren eta testuinguruaren arabera. Bigarren sektore gipuzkoarra ia hasierako momentuetatik bereizi zen. Bizkaiako eredu industrialetik, baina baita Espainia guztikotik ere. Izan zituen ezaugarriak erabat propioak izan ziren, bai hasieran (dibertsifikazioa ekoizpenari dagokionean, enpresa txiki eta ertainen hegemonia...) eta baita aztertu dugun epealdiaren amaieran ere (kooperatibismoa, kasu). Horrek, izan zuen garrantzia erlatibo nabarmena gehitzean, eredu nahiko arrakastatsu baten aurrean gaudela esateko parada ematen digu. Hori dela eta, kritikagarria iruditzen zaigu eskuliburu ezberdinetan duen protagonismo falta, askotan, industria bizkaitarraren mesedetan. Egia da bigarren sektore bizkaitarrak izan zuen garrantzia ezin dela konparatu gipuzkoarrarekin, ez behintzat maila kuantitatiboan, zeina espektakularra izan baitzen. Hala ere, ez zaigu iruditzen hori nahikoa arrazoi denik bigarren sektore gipuzkoarra bizkaitarraren itzalpean uzteko, sarritan uzten den bezala, eskuliburu eta artikulua batzuetan, bederen. Alor honetako ikerketa eta sintesi historiografiko gehiagoren beharra adierazi dezake honek, gure ustez.

Bestalde, aipagarria da industria gipuzkoarraren egoeran nazioarteko testuinguruak izan zuen garrantzia. Izan ere, ezin dira ulertu probintziako bigarren sektoreak jasan zituen gorabeherak nazioarteko egoera ulertu gabe. Horren adibide dira papergintzak hasieratik izan zuen protagonismoa, Gipuzkoaren kokapen estrategikoa zela-eta edo inportazioen debekuek autarkia garaian egindako kalteak, besteak beste. Ikusi dugunez, inportazio horiek oso izan ziren garrantzitsuak probintziarentzat, ez soilik Gipuzkoa ez zituen lehengaiz hornitu zelako, baizik eta jakituria tekniko eta berrikuntza teknologikoak ere

hein handi batean “inportatuak” izan zirelako. Laburbilduz, esan dezakegu bigarren sektore gipuzkoarrari hiru faktorek eragin ziotela batez ere bere garapenean: faktore endogenoek, gobernu espainiar ezberdinen politikek (zeinetan bereziki aipagarriak diren gobernu frankistak hartutako erabakiak) eta nazioarteko koiunturek. Azkenik, lan hau burutu ostean, eta ateratako ondorioak aterata, beste konklusio batera ere iritsi gara: lan historiko gutxi egin den gaia dela deritzogu. Ukaezina da informazioa badagoela (inoiz ere ez osoa, eta hutsune askokoa, zenbait sektoreri dagokienean batez ere), baina askotan lanik gehienak ekonomialariek eginak dira, eta ez historialariek. Erabilgarriak diren arren iturriok, lan historiko gehiagoren falta nabaritu dugu eta uste dugu badagoela gai sakon eta interesgarri bat etorkizunean historialariek gai eta epealdi hau jorratu dezaten.

Bibliografia

- Altuna, R. eta Urteaga, E. (2014). Los inicios de la experiencia cooperativa Mondragón. *REVESCO*, 115, 101-130 or.
- Álvarez Llano, R.G. (2008). *Historia económica del País Vasco-Navarro*. Bilbo: Berekintza.
- Arrieta, L. eta Barandiaran, M. (2003). *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Azurmendi, J. (1992). *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. Donostia: Azatza S.A.
- Carreras, A. eta Tafunell, X. (2010). *Historia económica de la España contemporánea (1789-2009)*. Bartzelona: Crítica.
- Castells, L. eta Luengo, F. (1988). El proceso de modernización de Guipúzcoa (1876-1920). *Ekonomiaz*, 9-10, 255-276 or.
- Catalan Martinez, E., Goñi Mendizabal, I. eta Mugartegi Egia, I. (2014). El papel de las redes empresariales en la industrialización guipuzcoana: el caso de la industria armera (1886-1925). *XI Congreso Internacional de la AEHE* (1-29 or.). Madrid : CUNEF.
- Catalan, J. (1990). Capitales modestos y dinamismo industrial: orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841-1918. Nadal, J. eta Carreras, A.-en

- (Edk.), *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX)* (125-150 or.). Bartzelona: Ariel.
- Catalan, J. (2005). La industria entre la guerra y la revolución (1936-1939). *VIII Congreso de la Asociación Española de Historia Económica* (1-94 or). Santiago de Compostela: AEHE.
- Catalan, J. (2009). Ekonomia industrial baten heldutasuna, 1936-1999. De la Granja, J.L. eta De Pablo, S.-en (Edk.), *Laurak bat: Euskadi eta Nafarroa XX. mendean* (or. 197-223). Bilbo: EHU.
- De la Torre, J. eta García-Zúñiga, M. (2013). El impacto a lo largo de la política industrial del desarrollismo español. *Investigaciones de historia económica: revista de la Asociación Española de Historia Económica*, 9(1), 43-53 or.
- García Crespo, M., Velasco, R. eta Mendizabal, A. (1981). *La economía vasca durante el franquismo. Crecimiento y crisis de la economía vasca: 1936-1980*. Bilbo: La gran enciclopedia vasca.
- García-Zúñiga, M. (2009). El desarrollo antes del desarrollismo. La industrialización de Álava. *Revista de historia industrial*, 41, 91-124 or.
- González Portilla, M. (1988). Aspectos de la industrialización del País Vasco. *Ekonomiaz*, 9-10, 173-188 or.
- Goñi Mendizabal, I. (2005). Evolución de la Industria Armera Vasca entre 1876 y 1969. Un enfoque a largo plazo. *VIII Congreso de la Asociación Española de Historia Económica*. (1-41 or.). Santiago de Compostela: AEHE.
- Goñi Mendizabal, I. (2009). La internacionalización de la industria armera vasca, 1876-1970. *ICE*, 849, 79-95 or.
- Ibañez, M. eta Zabala, M. (2010). Azpeitiko industria-lanaren oroimena. Azpeitia: Azpeitiko Udala.
- Jubeto, Y., Mariluz, S. eta Zurbano, M. (Edk.). (2002). *Euskal Herriko Ekonomia. Eraldaketa sozioekonomikoak Europar Batasuneko integrazio-prozesuan*. Bilbo: UEU.

- Legorburu Faus, E. (1991). La industria guipuzcoana entre 1930 y 1936: incidencia de la crisis económica. *Revista de Historia Económica*, 2, 361-394 or.
- Marks, R. B. (2015). *Mundu modernoaren sorrera. Kontakizun global eta ekologiko bat, XV. mendetik XXI. mendera arte*. Bilbo: EHU.
- Michel, M. (2006). El Pino radiata en la Historia Forestal Vasca. *Munibe*, 23, 1-247 or.
- Mendizabal, A. eta Serrano, F. (1987). La política industrial del franquismo: su influencia en la economía vasca. *Ekonomiaz*, 9-10, 301-322 or.
- Miralles, R. (1988). La crisis económica de los años treinta en el País Vasco. *Ekonomiaz*, 9-10, 277-300 or.
- Parejo Barranco, A. (2004). La industrialización de las regiones españolas durante la primera y la segunda revolución tecnológica. Andalucía, Cataluña, País Vasco (1830-1975). *Revista de Historia Económica*, 3, 670-705 or.
- Valdaliso, J. M. (2005). La industria de construcción naval y los mercados exteriores durante el Desarrollismo franquista. *VIII Congreso de la Asociación Española de Historia Económica* (or. 1-27). Santiago: AEHE.
- Valdaliso, J. M. (2010). Industrializazioa XX. mendearen lehen herenean eta haren protagonistak. De la Granja, J.L. eta De Pablo, S. -en (Edk.), *Laurak Bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendean*. (171-196 or.). Bilbo: EHU.
- Valdaliso, J. M. (2013). Las estrategias de desarrollo económico del País Vasco: una perspectiva histórica . *Ekonomiaz*, 83, 146-173 or.